

Alaia Ituño Martin
«Irakurtzea eta lagunekin egotea gustatzen zait»

# «Igor munstrokumea»




Bazen behin Igor izeneko munstrokume bat Marten bizi zena. Oso itsusia zen, lau begi zituen luze-luzeak zirenak, bere buztana urtxintxarenaren antzekoa zen, bere gorputza ere patata bat zirudien. Sudurra ere, azenorioa zirudien, eta haginak zorrotzak eta usteldua k zituen. Bere ahoko kiratsa jasanezina zen, belarriak oso handiak zituen eta gorputz guztia pekaz josita zuen, elgorria zirudien.



Egun disdiratsu batean Igor Lurrera iritsi zen, umeekin jolasteko asmoarekin

hurbildu zen baina gauza bat gertatu zitzaion. Oso itsusia zenez, umeak ikaratu egin ziren eta Igor oso triste jarri zen. Egunero ordu asko igarotzen zituen bakar-bakarrik inork ez zuelako berarekin jolastu nahi. Baina egun argitsu batean, Eneko izeneko mutiltxo bat hurbildu zitzaion. Eneko ez zen ikaratu Igor itsusia zelako. Itsuak galdetu zion Igorri:

— Jolastuko zara nirekin?

— Benetan? Nirekin hitz egiten ari zara? – galdetu zuen Igorrek guztiz harrituta.

— Bai, zergaitik ez, ba? – erantzun zuen Enekok. Igor une horretan konturatu zen Eneko itsua zela.

— Ba... zertan jolastuko gara? galdetu zuen irribarre batekin – gure munstrokumeak.

— Eskutaketan jolastuko gara?

— Ederto, baina... zuk... ezin nauzu ikusi eta...

— Ez larritu, nik nire makilatxoarekin edozer egin dezaket. Gainera nik beste zentzumenak oso garatuak ditut eta ikusi ez arren, zeuk baino hobeto entzuten dut eta ondo baino hobeto jakingo dut non izkutatzen zaren.



Igorrek eta Enekok elkarre-

kin primeran pasatzen zuten bitartean, besteek jeloskor begiratzen zieten.

Umeek galdetu zioten Igorri:

— Zuekin jolastu al gara?

— Noski!!! — erantzun zuen berak.

Handik aurrera denak elkarrekin gustora jolasten ziren.

Azkenean, Igorri gauza bat bururatu zitzaion. Berak lau begi zituenez eta Eneko itsua zenez, berari bi begi ematea, munduan dagozen gauza politak ikusteko. Baina Enekok, aurretiz eskerrak emanez Igorri bere eskuzabaltasunagatik, ezetz erantzun zion, munduan zegoen gauzarik politena zuelako: benetako adiskidetasuna.

Bi eta bi lau amaitu zaigu ipuin hau.





Aitor Lafuente Lezertua
«Niri kirola egitea eta marraztea gustatzen zait»

# «Otalarreko azeria»

## OTALARREKO AZERIA

Bazen behin azeri bat Foruko basoetatik ibiltzen zena, gutxi gorabehera Otalarre izeneko zelaietatik.



Egun batean, gaua belar sikuen gainean igaro ondoren, gosetuta jaiki zen. Nagiak kentzen zebilela, puzker batek irten zion pooooooorrot!!! ondoren esan zuen: "hoy buen día" orkestak ondo funtzionatzen du, trompe-tak soinu ona ateratzen du eta. Baina bere sabela utzik zegoen eta janari bila irten zen.

Otalarretik beheko estratzera, eta handik, Mikieta izeneko beste zelaira



abiatu zen. Astelehena ze-nez, toki horretatik Baldatikako andrak pasatu ziren Gernikako plazatik etxera.

Azeriak astootzaratik eroritako urdai zati bat aurkitu zuen bide ertzean, eta usaindu ondoren esan zuen: Zerbait hobea aurkituko dut, egun guztian honek gatz asko dauka eta. Bira eman eta, mota gainetik Urkieta baserriko errota azpian (andapararen ondoan) txerri bat ikusi zuen hamabi kumerekin.  Abiatu zen berarengana eta galdetu zion:

- Emango al didazu txerrikume bat? Ez zaizu ezer gertatuko bat gutxiago eduki arren.
- Nigatik bai, baina bataiatu gabe daude.
- Nik bataiatuko ditut, ibilita nago Foruko fraileetan monagilo!

Hartu zuen txerrikume bat belarritik, andaparan sartu eta gero atera; horrela egin zuen beste guztiekin baina, hamabigarrena atera zuenean, lurrean utzi baino arinago, txerriak musturreko eder bat eman zion, eta andajarara bota zuen azeria. Txerria bere kumeekin ukuilura sartu zen.

Azeria blai-blai eginda irten zen, eta gorputza astinduz Etxebarri baserrira



joan zen. Bertan, hiru ahuntz aurkitu zituen beraien antzumeekin. Ahuntz batek bi antzume zituen eta azeriak esan zion:

-Emango al didazu antzume bat? Urkietan zizia sartu dit txerriak eta andaparara bota nau.

-Nigaitik bai emango dizut baina, meza entzun gabe daude.

-Ez dago arazorik! Nik emango dut meza. Foruko fraileetan ibilita nago eta badakit kantatzen!

Azeria, ahuntza eta bi antzumeak Arnotxeko tejabanako labera joan ziren. Antzumea labearen aurrean eta azeria labearen gainean; horrela prest zeuden meza entzuteko.




Meza hasi zen: auuuuuuu, auuu, auuu alaruka eta auzika entzun ondoren baserrietako txakur guztiak, beraren atzetik joan ziren. Azeriak alde egin behar zuen mezaren erdian, antzumerik gabe, txakurren erruz.

Kosmoaga baserriraino jarraitu zioten txakurrek, baina azeria bakarrik geratu zenean, zaldi bat ikusi zuen bi kumerekin; oso ederrak gainera!



Azeriak esan zion zaldiari:

- Emango al didazu zaldi kume bat?

Gose naiz eta gainera nekatuta nago txakurrek jarraitu didatelako.

- Bai emango dizut, baina gutuna irakurri gabe daude.
- Lasai! Nik irakurriko diet. Foruko fraileetan ibilita nago eta badakit irakurtzen. Non daukazu gutuna?
- Atzeko hankako apatxean.

- Ea ba, altxa ezazu hanka.

Zaldiak hanka altxatu eta poooooomm!!! Ostiko bat eman zion. Azeria lurrean geldittu zen zorabiatuta, eta zaldia bere kumeekin ukuilura joan zen.

Azeria handik ordu erdira jaiki zen, eta Mikietara joatea erabaki zuen, hasieran utzi zuen urdaiaren bila.

Laburbilduz, ipuin honen esanahia: gauzak txikitzat hartzen dituenak eta gauza hobeagoen bila doanari ezbehar hauek gertatu ahal zaizkio.



Mikel Gabiola Foruria

«Lagunekin jolastea eta bizikletan ibiltzea gustatzen zait»

# «Iker eta Ander, bere robota»

## Iker eta Ander, bere robota

Bazen behin, Iker izeneko mutiko azkar eta atsegin bat. 10 urte zituen. Begi berdeak zituen eta ile labur beltza. Ikerri kirolak gustatzen zitzaizkion, batez ere saskibaloia. Ikasle ona zen eta lagun asko zituen. Arraina gustatzen zitzaion baina ez piperrak. Ez zuen etxe-abererik, baina asko gustatuko zitzaion txakur bat edukitzea.

Egun batean, bere marrazki bizidun gustukoena "Mikel eta Gorka, bere robota" ikusten ari zenean, liburu bat jausi zitzaion buru gainera, apal batetik erorita. Liburuaren izenburua "Mila gauza eta gehiago ez aspertzeko" zen. Liburua zabaldu eta bertan gailu magikoak egiteko jarraibideak ageri ziren. Orrialdeak pasa eta robot bat nola egin modu erraz batean agertzen zen. Korrika batean, telefonoa hartu, Ozhizuri deitu eta dena kontatu zion. Ozhizu japoniarra zen baina bi urterekin Euskal Herrira etorri zen bizitzera, bere familiarekin. Neska polit beltzarana zen, txikitatik Ikerren lagunik onena. Ozhizu bere etxera joan zen eta bien artean robota eraikitzea adostu zuten. Jarraibideak pausoz-pauso jarraituz robot txiki eta dotorea egin zuten. Izena jartzeko orduan, eztabaida bat baino gehiago izan ziren. Batak Ramon, besteak Jose... Azkenean Ander izenarekin gelditu zen.

Liburuko tresna magikoak sortuz, hirurak makina bat abentura bizi izan zituzten. Hona hemen abentura batzuk:

Ozhizuk, urtero, "Imoiz ez gelditu" lasterketan parte hartzen zuen baina beti gelditzen zen bigarren postuan, June izeneko neska batek irabazten baitzuen beti. Hortaz Ikerri laguntza eskatu zion. Liburuan begiratu eta tresna egoki bat bilatu zuen: bizkor korrika egiteko zapatilak. Haiek ipinita Ozhizuk esfortzurik egin gabe irabazi zuen lasterketa eta bere bizitzan lehen aldiz lehenengo postua lortu zuen.

Beste batean, galleta berezi batzuk egin zituzten labean. Haiek jan eta animaliak bihurtzen ziren. Iker txakur bihurtu zen, Ozhizu oilo eta Ander sagu itsusi. Orduan Ozhizu zaratatka hasi zen; saguak beldurra ematen baitzioten. Egun hartan oso ondo pasatu zuten.

Hurrengo egunean, berriro galletak egin zituzten, baina gaizki atera zitzaizkien eta animalia bihurtu beharrean, tripako minak etorri eta gaixotu egin ziren. Egun osoa ohean igaro zuten.

Behin, hegan egiteko hego batzuk eraiki zituzten eta mundu osoari bira eman.

Aste batzuk geroago ur azpian arnasa hartzeko edabe bat asmatu zuten. Horren errezeta ez zen liburuan agertzen; beraiek egin zuten euren kabuz, eta liburuan idatzi zuten, azpian beraien sinadurak jarriz. Orduan txango bat proposatu zuten: hegan egiteko hegoak hartu eta Donostiako akuariora bidaia egitea. Esan eta egin! Akuario liluragarria zen. Inoiz ere ez zuten hainbeste animali ikusi.

Edari magikoa edan eta arrainekin ibili ziren jolasean egun osoan.

Liburu bitxi hori toki sekretu batean gordeten zuen, inork aurkituko ez zuen lekuan, robotaren barnean.

Baina neguko arratsalde beltz batean, Ander gaizki funtzionatzen hasi zen eta su hartu zuen. Berarekin batera erre ziren liburu magikoa eta gailuak egiteko jarraibideak. Ohiitzu eta Iker oso triste jarri ziren baina sekula ere ez dituzte ahaztuko Anderrekin igarotako momentu on eta zoragarriak.

Noizbait robot bat egitea bururatzen bazaizu, kontuz ibili, robotek ere akatsak dituzte eta. Baina hala ere, saiatzea gomendatzen dizut. Zure gogoa jartzen baduzu eta elkarlanean lan egin posible izan liteke robot bat sortzea.

Zorte on!!!

